

Urazemendi eta Urazandi izenei buruzko txostena

Informe sobre los nombres *Urazemendi y Urazandi*

Rapport sur les noms *Urazemendi et Urazandi*

Report on the names *Urazemendi and Urazandi*

LARRAÑAGA ARRIETA, Josu

josularra@gmail.com

Filologoa eta euskara teknikaria

Noiz jaso: 2020-02-13

Noiz onartua: 2020-04-30

Deba ibaiaren ezker aldean, Mutrikuko lurretan, egon zen *Urazemendi* edo *Urazandi* etxe historikoa. Etxea XX. mendearan amaieran desagertu arren, izenek bizirik jarraitzen dute, eta gaur egun Mutrikuko auzo baten izena ere bada. Ibaiak (urak) izendapen bikoitza eragin du: debarrek *Urazandi* erabiltzen dute eta mutrikuarrek *Urazemendi*. Etxearen eta auzoaren izena normalizatzeko orduan Mutrikuko *Urazemendi* formaren aldeko argudioak ematen dira artikulu honetan. Horretarako, aspalditik dokumentatzen diren bi izen horien idatzizko eta ahozko lekukotasunak ematen dira.

Gako-hitzak: Urazemendi, Urazandi, Mutriku, toponimia.

La histórica casa *Urazemendi* o *Urazandi* se emplazaba en la margen izquierda del río Deba, en el término municipal de Mutriku. Aunque dicha casa desapareció a finales del siglo XX, ambos nombres siguen vivos, e incluso hoy en día es el nombre de uno de los barrios de Mutriku. El río dio lugar a una doble denominación: mientras que los debarras emplean la forma *Urazandi*, en Mutriku se emplea *Urazemendi*. En este artículo, partiendo de testimonios escritos y orales, se ofrecen argumentos a favor de optar por la forma *Urazemendi* a la hora de normalizar la denominación del barrio y la histórica casa.

Palabras clave: Urazemendi, Urazandi, Mutriku, toponimia.

C'est sur la rive droite du fleuve Deba, sur les terres de Mutriku, que se dressait la maison historique *Urazemendi* ou *Urazandi*. Bien qu'elle ait disparu à la fin du XXe siècle, ces noms existent toujours car aujourd'hui il s'agit du nom d'un quartier de Mutriku. Le fleuve (l'eau) a fait naître une double définition : les habitants de Deba utilisent le nom *Urazandi* tandis que ceux de Mutriku utilisent le nom *Urazemendi*. Le moment étant venu de normaliser le nom de la maison et celui du quartier, cet article montre que les arguments sont plutôt en faveur du nom *Urazemendi*. De nombreux témoignages, tant oraux qu'écrits, sont cités.

Mots-clés : Urazemendi, Urazandi, Mutriku, toponymie.

The no longer standing house *Urazemendi*, also known as *Urazandi*, was on the left bank of the river Deba in the Mutriku municipal area. Although the house disappeared at the end of the 19th century, the name is still in use and is now the name of a neighbourhood in Mutriku. The river boundary has led to two versions of the name being used: *Urazandi* in Deba, and *Urazemendi* in Mutriku. This article gives reasons for supporting the Mutriku form *Urazemendi* as the standard name for both the house and the neighbourhood. To this end, written and oral records of these two long-documented names are given.

Keywords: Urazemendi, Urazandi, Mutriku, toponymy.

Xedea

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak *Urazamendik* izen ofiziala duen eta Akademiaren datutegian *Urazandi* izenez ageri den Mutrikuko auzoaren izenaren inguruko txostena egitea. Ondorioz, txosten honen xedea da Mutrikuko *Urazemendi* eta *Urazandi* leku-izenek atzo eta gaur izan duten idatzizko eta ahozko erabilera aztertzea, eta, datu horiek eskuetan, izenak arautzeko proposamena egitea.

Aurkezpena

Sasoi batean oikonimoa edo etxe izena baino ez zen *Urazemeti* edo *Urazandi*¹. Aurrerago, etxearen ingurua izendatzen hasi zen, eta azken hamarkadetan biztanle-entitatea (auzunea edo auzoa) izatera iritsi da.

XVI. mendearen hasieratik gaur egunera arte dokumentatzen diren formak izango ditugu aztergai. Horretarako, *Urazemendi* eta *Urazandi* izenen esanahia argituko dugu lehendabizi; ostean, txosten honen bigarren zatian (“Idatzizko erabilera”), azalpen historikoak eta gizarte mailakoak agertuko ditugu; hirugarrenean (“Ahozko erabilera”), ahozko lekukotasunak ekarriko ditugu; eta, laugarrenean, normalizazioaz arituko gara. Azken zatian, “Eranskinak” jasoko ditugu: erabilitako laburdura eta siglen aurkibidea (artxiboak, eskribauak eta bestelakoak), eta kontsultatutako bibliografia.

1. Toponimoaren esanahia, uraren alderdi banatan

Aurrerago ikusiko dugunez, Mutrikun, bi dira euskarazko egitura duten izen historikoak: *Urazemeti* eta *Urazandi*. Esanahiari dagokionez, izen gar-denak dira, garbiak.

¹ Aurrerago ikusiko dugun moduan, Mutrikuko aldean izen bat baino gehiago hartu du aztergai dugun etxeak: *Urazemeti*, *Uraz-emeti*, *Urazemendi*, *Urazamendi*... Azalpenak emateko izen historikoa (*Urazemeti*) eta gaur egungoa (*Urazemendi*) tartekatuko ditugu.

Lehenengoak, *Uraz + emeti*, “uraz hemengo aldekoa” esanahia du, uraren alde honetara dagoena. Bigarren izenak, berriz, *Uraz + (h)andi*, “uraz handikoa”, uraz beste aldekoa, alegia. Euskal Herrian ohikoa da “ur(a)” elementua erabiltzea ibaia izendatzeko (*Urederra, Urzabal*), baita erdaraz ere (*Ambasaguas, Entrambasaguas*).

Deba ibaiaren ezker-ibarrean egondako etxeari mutrikuarrek *Urazemeti* (*Urazemendi*) esaten zioten, eta uraz beste aldekoek, debarrek alegia, *Urazandi*.

Honela azaldu zuen Rafael Castellano bikoiztasun hori:

...erguido al borde de la ría, con su barco de velas desplegadas en el escudo del dintel, se le conoce como Urasamendi en el territorio de Mutriku, que es donde está enclavado; o sea, Uraz-amendik, que significa “más acá de las aguas”; mientras que las gentes del Deva-pueblo lo llaman Urasandi, es decir, Uraz-andik, “más allá de las aguas”. Este fenómeno de las dos toponimias para un mismo caserío o barrio, determinadas por la frontera del río, se repite cauce arriba, en la zona de Elgoibar. (Castellano, 1981: 15)

Gerardo Elortzak argi azaltzen ditu *Urazandi* eta *Urazemendi* izenak:

Significa literalmente «al otro lado del agua», es decir «lugar que está situado al otro lado de las aguas de un río o riachuelo». No hay dificultades en interpretar la etimología de este término ya que está compuesto por dos elementos bien definidos: *uraz* («del agua») y *andi* («al otro lado»). La segunda mitad de este nombre de lugar (*andi*) no tiene ninguna relación con (*h*)*andi* («grande»), es más bien una variante muy extendida de (*h*)*andik* («de allí») (...) es un caso curioso de toponimia situacional: mientras que para los habitantes de Deva la casa ha sido siempre conocida como Urazandi («al otro lado del agua»), en Motrico está calificada Urazemendi («a este lado del agua») o «lugar que se sitúa a este lado del agua»). (Huxley & Barkham, 1996: 349)

Urte berean, honela idatzi zuen Alberto Santanak:

...nadie en Mutriku podría referirse a este solar como Urazandi – que equivale al topónimo castellano Allendelagua–, pues sólo puede utilizar correctamente tal denominación quien antes se ha situado

mentalmente en la otra orilla; es decir, quien toma la ribera derecha y el término municipal de Deba como eje de ordenadas de su geografía personal. (Santana, 1996: 319)

Dena dela, Koldo Mitxelena izan zen lehenengoetakoa *Urazandi* izena azaltzen:

Por lo que respecta a *Uresandi*, *Urazandi*, *Urazurrutia*, puede tratarse del instrumental, determinado o indeterminado, de (*h*)*ur* (*uraz* y *urez*), al menos si *-andi* es una var. de *haindi*, *haraindi* «(la) otra parte, (el) lado de allá». Ya se ha dicho que *Urazandi*, *Urazurrutia* es exactamente «allende el agua». (Mitxelena, 1955: 157-158)

Alfonso Irigoyen zenak ere *Urazurrutia* eta *Urazandi* leku-izenak egitura berekoak zirela aipatu zuen 1995. urtean argitaratutako artikulu batean.²

Bilboko *Urazurrutia*³ (*uraz* + *urrutia*) horrez gain, horrelako izenak guk uste baino hedatuago egon dira gure artean. Adibide batzuk ekarriko ditugu:

Urezarantza auzoa (Gorliz).⁴

Urazandi baserria (Zumarraga).⁵

² “Badira *Urazurrutia* eta *Urazandi* ere, bigarrenak kasuren baten *Urazemendi* ere izan dezakeela, uren nongo aldetik begiratzen den”; eta zehazten du: “Hori gertatzen da Deban, uraz bestaldean dagoen etxeari *Urazandi* deitu izan baitzaio, baina mutrikuarrek *Urazemendi*. Hala erran zidan Gerardo Elortza irakasle eta ene adiskide on denak” (Irigoyen, 1995: 240).

³ *Urruti* hitzak ere, *-andi* amaierak bezala, esanahi garbia dauka *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren* arabera: “Hauetako hainbatetan ‘-z haraindian, bestaldean’ esan nahi du hitzak, itxura guztien arabera. Nabarmena da esanahi hori Bilboko *Urazurrutia* eta Gares ondoko *Zubiurruti* izenetan...” (Lakarra & Manterola & Seguro, 2019: 402).

⁴ *Usercanzas*. [sic], 1727; *Uresaransa*, 1776; *Urezarantza*, 1816... Honela azaltzen da Gorlizko toponimiari buruzko lanean: “Bonito topónimo eusquérico que significa aproximadamente ‘allende el agua’. Está compuesto por ur ‘agua’, la desinencia instrumental -z ‘de’, el adverbio demostrativo ha- ‘allá’ y la desinencia de adlativo -rantz(a). En euskera estándar se podría utilizar comúnmente la expresión equivalente urez harantz(a) ‘hacia allá del agua’ ”. (Galé, 2009: 600-601).

⁵ “Casa e caseria de Urazandi” (GPAH 1/3950, C68r, 1559. urtea); “Casa e caseria de Huraçandi” (GPAH 1/3981, A: 304v, 1585. urtea); “Urazandi” (Martínez de Isasti, 1625: 115).

Urazandi baserria eta erreka (Ziortza-Bolibar).⁶

Urazandi baserria (Galdakao).⁷

Urazandi baserria (Morga).⁸

Urazandi baserria (Meñaka).⁹

Urazandi baserria (Ea).¹⁰

Urazandiko basoa (Zornotza).¹¹

Urazandi baserria (Erando).¹²

Urazandi baserria; *Urazandialdea* aurkintza (Azpeitia).¹³

Urazandi auzoa eta kalea (Elgoibar).¹⁴

Urazandi aurkintza (Ordizia).¹⁵

Urazandi aurkintza (Okondo).¹⁶

Urazandi auzoa (Barrundia).

Ekarri ditugun adibide horiek guztiek uraren beste aldean kokatzen gaituzte: uraz harantza (*Urazarantza*), uraz urruti (*Urazurrutia*), uraz handiko aldean (*Urazandi*).

⁶ BFAH, CENARRUZA 0019/017, 1615. urtea.

⁷ “Casa y caseria de Urazandi” (BFAH, JCR0094/032, 1716. urtea).

⁸ BFAH, JCR3610/009, 1667-1669. urteak.

⁹ “Caseria de Urazandi” (BFAH, N0115/0080, Juan Estibariz de Meñaca eskribaua, 1575. urtea; BFAH, JTB0065/017, 1799. urtea).

¹⁰ BFAH, JTB0013/029, 1646. urtea.

¹¹ BFAH, JCR0917/039, 1676. urtea.

¹² BFAH, JCR0985/033, 1695-1705. urteak.

¹³ “Urasandi Aldea” (GPAH 2/3760, A: 227, 1857. urtea).

¹⁴ “Casa de Urasandi de Alzola” (GPAH 1/1816, A: 132-133, 1831. urtea).

¹⁵ “Urasandi (1647)” (Etxaniz & Zaldua 2010). Hemen ere bai: <http://www.ordizia-euskaraz.es/toponimia/fitxak/urazandia-a>

¹⁶ “Un arrbolar en el puesto de Urazandi” (ATHA-DAH-FAVE-004-047-01, 1828. urtea).

Ibai edo erreka baten presentzia salatzen dute toponimo horiek¹⁷.

Urazurrutia izenaren “urak” Ibaizabal esan nahi du¹⁸. 1617. urtean “Allende La Puente” izenez agertzen zaigu auzo hori¹⁹.

Gorlizko *Urezarantza* auzoaren kasuan, laugarren oin-oharrean esandakoak osatzeko, honela azaldu zuten toponimia ikerketaren egileek “koka-pen-toponimo” hori:

Es un topónimo generado desde la capitalidad de la anteiglesia hacia el barrio designado que deja a éste, de algún modo, en situación subalterna respecto a Elexalde. Los propios vecinos del barrio jamás hubieran podido generar ese nombre... El ‘agua’ a que hace referencia el nombre es sin duda el río que separa ambos barrios, es decir, la línea formada por Sertutxerreka y Gazatza. (Galé, 2009: 600)

Aztergai dugun izenaren kasuan baina, bi forma edo “bertsio” dokumentatzen dira aspalditik: *Urazandi*, eta *Urazemeti*, hain ohikoa ez dena. Bitxia bada ere, bi izenok bizirik daude Deba ibaiaren alderdi banatako ahozko erabileran.

Kasu gehienetan, dokumentuak sortzen zituzten eskribauak eta udal-agintariak (eskriturak egiletsiz, esaterako) ibaiaren alde batean zegoen herrigunekoak izaten ziren. Bilbon, gunen nagusikoak edo Zazpikaleetakoak; Gorlizen, Elexaldekoak... Azken batean, ibai edo errekaaren alde batekoek “ozenago” hitz egiten zuten...

2. Idatzizko lekukotasunak

Zenbait iturri dokumental hustuta (artxiboak, hemerotekak eta bibliografia), datu adierazgarriak eskuratu ditugu. Dokumentatu ditugun aipame-

¹⁷ Aztergai dugun etxearen kasuan (Mutriku) oikonimoa kokapen-toponimotzat (topónimo situacional) hartzen den arren, gerta daiteke aipatutako izenen artean, baten bat jabearen deituratik sortu izana, izan ere aspalditik dokumentatzen da Bizkaian *Urazandi* (*Uraçandi*, *Huraçandi*) deitura.

¹⁸ “...el arrabal de Urazurrutia...” (BFAH, JCR0952/044, 1583. urtea).

¹⁹ “...la cassa de la carnicería del barrio de allende la puente de esta V³[villa]” (1617) (BFAH, BILBAO ANTIGUA 0079/001/004).

nak eranskin gisa jaso ditugu (5.1.), baina datuok euren testuinguru egokian ulertzeko, atal honetan, *Urazemendi* edo *Urazandi* etxearen alderdi historiko batzuen berri emango dugu.

2.1. Lehen aipamenak eta arriolatarrak

Itxuraenez, XV. mendearen bigarren zatian eraiki zuten *Urazemendi* edo *Urazandi* dorrea. 1477. urte inguruan ba omen zegoen²⁰ Deba ibaiaren ezker-ibarrean eraikitako dorretxe hori eta bertako jabeak, itxuraenez, merkataritzari lotuta egon ziren hasiera-hasieratik. Itsasadarra, lehen mailako "autobidea" zen salgaiak garraiatzeko, eta hura leku aparta zen itsasontzien joan-etorriak bertatik bertara kontrolatzeko.

Arriola abizenekoek sortu zuten Deba ibaiaren ondoko etxe hori²¹; familia hori botere handikoa zen bai ekonomikoki, bai politikoki.²²

Garrantzitsua da seinalatzea XVI. eta XVII. mendeetan *Urazandi* edo *Urazemeti* dorretxeko jabeek, Mutrikuko lurretan bizi arren, bizimodua Deba aldean egiten zutela.²³ Debara begira bizitzeak sarritan *Urazandi* (*Uraçandi*) izena erabiltzea eragiten zuen. Are gehiago, kasu batzuetan, *Urazandi* izena euren izen-deituren ondoan erabiltzen zuten.²⁴

²⁰ Honela deklaratu zuen Lope de Ollaoqui debarrak 1518. urteko auzi batean: "puede aver quarenta e un años poco mas o menos tiempo este testigo estando en la casa e torre que esta a la parte de Motrico çerca de la dicha ría e canal donde el barco e pasaje suele haser su escala" (MUA-002, 437).

²¹ "La casa torre de Urasandia fue fundada por una rama de los Arriola provenientes posiblemente del cercano barrio debarra del mismo nombre" (Aldabaldetrek, 1998: 606).

²² Esaterako, "Juan Perez de Arriola dueño de la Casa torre de Urasandi, con puerto propio, vecino de Deva y Motrico, era también constructor y propietario de barcos" (Aldabaldetrek, 1989: 31). Eta ez hori bakarrik, balea-arrantzan ibilitakoa ere bazen, eta 1566. urte inguruan artilearen garraioari lotuta azaltzen zaigu. 1583. urtean Debako alkate izan zen. Ikus, halaber, Aldabaldetrek, 1998: 606-607.

²³ "Vivían en territorio de Mutriku, pero su asentamiento en la ribera izquierda respondía a razones de pura estrategia económica y no a un deseo de vinculación exclusiva con el concejo que les acogía" (Santana, 1996: 319).

²⁴ "Para distinguirse de otros Arriola, apellido prodigado en la villa de Deba y otros municipios cercanos de la provincia, acompañaban algunos de ellos el toponímico de la casa torre" (Aldabaldetrek, 1998: 606).

2.2. Pasaia-ontzia eta dorretxea

Urazemeti eta *Urazandi* izenez gain, etxeak hirugarren izen bat izan zuen, guregana erdaraz baino heldu ez dena, “torre del pasaje”.²⁵ Kontuan hartu behar dugu mende luzez ontziz baino ezin zitekeela zeharkatu ibaia, harik eta 1866an zubia eraiki zuten arte.²⁶

Urte hori baino lehenago, Mutrikutik Debara joan behar zutenek Urazemendi etxearen ondotik pasatu behar izaten zuten ezinbestean, etxe aldamenean zegoelako itsasontzirako saltalekua. Dena delakoagatik itsasontziaren zain gaua pasatu behar zutenentzako benta edo ostatua egokitzeko eskaera egin zuten 1772. urtean:

la mucha necesidad que havia de que en la casa nombrada en ella Urazemeti, y en la de Deva Urazandia, hubiese alguna providencia de camas, y vituallas para los Pasajeros, que llegando a aquel parage despues de anohecido, y otras muchas horas, se encontravan con la imposibilidad de no poder atravesar el Rio a causa de que el barco del pasage se halla continuamente a la otra vanda del Rio y se suele amarrar a alguna distancia de la Población de la N^o Villa de Deva, en la casa Lonja llamada Maspe o su cercania...²⁷

2.3. Urazandi etxeakoak Deban lurperatzen

Bi udalerrien arteko ibaiak, baina, aspalditik eragin zituen liskarrak, biek zutelako interesa euren ibaiertzak merkataritzarako erabiltzeko.²⁸

²⁵ “El tercer nombre, la Torre de «Pasaje», se ponía a la casa porque señalaba el lado oeste del embarcadero o pasaje en barca para viajantes que iban por tierra a lo largo de la costa entre San Sebastián y Bilbao” (Huxley & Barkham, 1996: 349).

²⁶ Ikus Aldabaldetrecu, 1996: 63-64.

²⁷ GPAH 1/2741, C126v-127r, Eskribaua: JBA, Mu.

²⁸ “Ziur asko, ibaiaren bestealdean Deba sortu eta berehala hasi ziren bi herrien arteko liskarrak, biek kontrolatu nahiko zutelako salgaien ibai bidezko garraioa eta zamaketa. (...) Mutrikuk portua zuen, eta Debak ibaia. Azken herri horrek gehiago garatu zituen hirigintza eta merkataritza. Mutrikuko herrigunea, bestalde, urrun samar zegoen”. (Martínez, 2009: 73).

Urazemendi eta inguruko etxeak Urazemendi edo Laranga auzoan daude gaur egun. Sasoi batean, bertan jaiotakoak Mutrikuko parrokian bataiatzen zituzten, baina, bitxia bada ere, hildakoak Deban lurperatzen zituzten. Horren lekukotasun ugari dauzkagu, aspalditik gainera:

Juan Martínez de Yçeta pilotu debarrak honela azaldu zuen kontu hori 1518ko auzi batean: “ha oydo dezir en la dicha villa de Deva en todo su tiempo que tres casas que son en la juridición de Motrico que se llaman Lasao e Buztinaga e Huraçandi tienen sus enterrorios en la dicha villa de Deva”.²⁹

Beste hau, berriz, oraintsukoa da: 1893ko urriaren 25ean bi urteko umetxoa hil zen Mutrikuko *Urasemetic* baserrian. Honela jaso zuen Mutrikuko parrokoak horren berri bere heriotza-agirian:

mandé, que se condujera al limite de esta parroquia, al puente de Deva, para que se hiciera cargo el Cabildo de Deva, y dieran sepultura eclesiástica en el Campo Santo de la referida villa, por tener autorización de ambas autoridades Eclesiástica y Cibil(sic) el cadaver de Petra Josefa de Egaña y Gallastegui.³⁰

2.4. Mutrikurako bidea eta Debarako zubia

Debatik Mutrikurako bidea 1863an egin zuten. Ordura arte kostaldean ez zegoen biderik Mutrikura joateko, eta ezinbestean Larangamendirako bide malkartsutik gora igotzea baino ez zegoen. *Urazemendi* etxea, beraz, bidearen amaiera izan zen mende luzez. Baina, hala ere, gorago aipatu dugun bezala, paso-pasoko lekua zen; 1866. urtean Debarako zubia eraiki arte, *Urazemendi* etxe aldamenara joan beharra zegoen alde batetik bestera pasatzeko batela hartzeko.

Itsasertzetik Debatik Mutrikurako bidea egin zutenean, Urazemendi etxea itsasotik apur bat urrundu zen.

²⁹ MUA-002, 396; Fernández, 2007: 345.

³⁰ DEAH, Mutriku, Jasokundeko Andre Maria eliza, Hildakoen 11. lib., 1893-10-26, 157v.

1. irudia. Mutriku-Deba zubia



2.5. Debara begira: auzokideek desanexioa eskatu zutenekoa

Bada gertaera bat ederto batean islatzen duena Deba ibaitik gertu bizi ziren mutrikuarrek Deba herrirako zuten joera. 1961. urtearen amaieran Mutrikuko 22 familiak baimena eskatu zioten Debako Udalari *Urazemendi* auzunea Debako udalerraren zati izatera pasatzeko:

...veintidos cabezas de familia, de los veinticinco que integran o constituyen el sector denominado “Carretera de Motrico”, con una población total de noventa y seis habitantes, pertenecientes al Municipio de Motrico, limítrofe del de esta villa de Deva, por la que solicitan que por este Ayuntamiento se incoe expediente al objeto de solicitar del Gobierno la segregación de dicho barrio del término de Motrico y su agregación al de esta villa de Deva.³¹

Segregaziorako dokumentazioan, ingurua *Carretera de Motrico* izendatzen da batzuetan eta *barrio de Uras-emendik*³² beste batzuetan.

³¹ DUA-082, Actas 1957-1964, 1962-01-03, 113r.

³² DUA-082, Actas 1957-1964, 1962-11-22, 142r.

Mutrikuko Udalak eskaera horren kontra egin zuen eta Gipuzkoako Aldundiak arrazoia eman zion. Ezaguna den bezala, gaur egun ere, Mutriku izaten jarraitzen du inguru horrek.

Dena dela, deigarriak dira Mutrikuko Udalaren ezezkoaren aurrean Debako Udaleko aktetan agertzen diren argudioak:

para oponerse a la segregación solicitada por la mayoría de los vecinos de la zona de referencia invocan argumentos de carácter afectivo-sentimental, del que se resiste a una mutación legal solicitada por los interesados, a fin de que armonice con la realidad tangible y patente de su vinculación total en todos los ordenes a la villa de Deva.³³

2.6. Urazemendiko ontziak eta 1989ko sutea

1989ko abenduaren 16ko gauean Urazemendi etxearen inguruko mendiek su hartu zuten, zoritxarrez sugarrek etxearen teilatua harrapatu eta handik gutxira oso-osorik kiskali zuten etxea.

2. irudia. Urazemendiko naoa



Iturria: GipuzkoaKultura. KO:56027:12x

³³ DUA-082, Actas 1957-1964, 1962-07-09, 131v-132r.

Etxe hartatik sarrerako ateburua baino ez da gordetzen. Bertan, XVI. edo XVII. mendean zizelkatutako nao³⁴ dotorea agertzen da. Gaur egun Donostiako Untzi Museoa ikus daiteke behe-erliebe eder hori.


2.7. Urazandiberri etxea

1989. urtean Urazemendi etxea erre ondoren, bertakoek etxe berria eraikitzea pentsatu zuten. Urazemendi etxea baino gorago, Buztiñaga baserrirako bidean gora eginda, etxearen lursail bat bereizi edo segregatu eta etxe berria eraiki zuten. 1992. urteko Gabon bezperan piztu zuten lehenengo aldiz sukaldeko sua. Eibarko Jabetza Erregistroan (EJE) “Urasandi berri” izenez dago inskribatuta.³⁵ Mutrikuko mapetan ere izen horrekin agertzen da etxe hori: *Urasandiberri* (1999), *Urazandiberri* (2010).

3. irudia. “Urasandi berri”



4. irudia. “Urasandiko karobia”



Urazemendi etxea egon zen lekutik gertu, *Urazandiberri* etxerako bidean, karobia dago. Kartela ere badu, zenbait azalpen argigarriekin batera: “Ura-

³⁴ “...bajorrelieve del siglo XVI de un navio vasco de uso múltiple (o nao) que -hasta la reciente destrucción por incendio de Urazandi- adornó una de las entradas de la casa...” (Huxley & Barkham 1996: 351). Alberto Santanak naoaren data zehazten du: “Hareharrian landutako erliebea da, 1585-90 urteen inguruan egina” (Santana, 1996: 319).

³⁵ EJE, 100. liburua, 5.794 finka, 4. inskripzioa, 53r.

sandiko karobia”. *Urazemendi* etxekoek eraiki omen zuten XIX. mendearen amaieran, eta erabili ere eurek erabili zuten harik eta 1940. urtean bertan behera utzi zuten arte.

2.8. Debarrek izen bat eta mutrikuarrek beste bat?

Arriola familiaz, behe-erliebeaz eta antzekoez idatzi izan duten historialariek³⁶ sistematikoki *Urasandi*, *Urasandia* eta *Urazandi* formak erabili dituzte, XVI. eta XVII. mendeko agirietan izen horiek nagusi direlako erabili duten dokumentazioan.

Urazemendi izena bere sasoian egondako etxe historikoa ez ezik ingurua izendatzeko ere erabiltzen da. Paraje hori Debatik gertu dagoenez, eta bertakoek Debarako joera dutenez, oso zabaldua dago gaur egun *Urazandi* izena. Dena den, oraindik ere, bada kontzientzia mutrikuarren artean auzoaren betiko izena *Urazemendi* edo *Urazamendi* dela.

Izen-dantzaren adibide gisa, XIX. mendearen amaierako adibide bat ekarriko dugu. 1893ko urriaren 7an Gregoria Egaña Gallastegui izeneko umea hil zen Urazemendin eta Deban lurperatu zuten. “Caseria Urasandi” jaso zuen idatziz Debako parrokoak³⁷, “caseria de Uras-emetie” Mutrikuko parrokoak³⁸ eta “Caseria Uasameti” Mutrikuko bake-epaitegi-koek.³⁹

Aspaldikoa da bikoiztasun horren kontzientzia. Horren adibide dugu 1772. urtean Juan Bautista de Arriola eskribauak jaso zuena: “casa nombrada en ella [Mutriku] Urazemeti, y en la de Deva Urazandia”.⁴⁰

³⁶ Txosten honetan aipatu ditugun historialariek forma hauek erabiltzen dituzte: *Urasandi* (Aldabaldetrecu, 1989, Adabaldetrecu & Castro 2019), *Urasandia* (Aldabaldetrecu, 1996; idem 1998), *Urazandi* (Huxley & Barkham, 1996; Santana, 1996).

³⁷ DEAH, Deba, Andre Maria eliza, Hildakoen 7. lib., 1893-10-08, 225r.

³⁸ DEAH, Mutriku, Jasokundeko Andre Maria eliza, Hildakoen 11. lib., 1893-10-08, 156r.

³⁹ MBE, 1893-10-07, heriotza-agiria, 4. liburukia, 93r.

⁴⁰ GPAH 1/2741, C126v-127r.

3. Ahozko lekukotasunak

Kontu ezaguna da idatzizko tradizio sendorik ez duten toponimoen kasuan idatzizko erabilera, neurri handi batean behintzat, ahozkoaren isla izaten dela. Horixe gertatzen da *Urazandi* eta *Urazemendi* bikotearekin.

Aztergai dugun izenak ez du zalantzarako tarterik uzten ahozko erabilerrari dagokionez: Mutrikun bizi direnek *Urazemendi*⁴¹ edo *Urazamendi* darabilte nagusiki, eta, Deban bizi direnek *Urazandi*.

Egia esan, debarren kasuan sistematikoki erabiltzen dute *Urazandi* forma, baina, mutrikuarren kasuan, bi erabilera-ohitura daude:

- a) *Urazemendi*, *Urazamendi* eta *Urazemeti* darabiltzatenak, betiko erabilerari jarraituz (gurasoengandik jasota, herrian hala erabiltzen delako eta abar).
- b) *Urazandi* darabiltenak, bizimodua Deba aldean egiten dutelako eta hangoen ikuspegia hartuta izena ere hangoena erabiltzen dutelako.

Lau lekukotza jaso ditugu:

3.1. Mutrikuko kaletarra⁴²

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
“Guk mutrikuarrak Urásemendi [esaten dixau] eta debarrak Urásandi” / “Urásamendi, urás améndik”.	<i>Guk mutrikuarrok Urazemendi [esaten diogu] eta debarrek Urazandi. / Urazamendi, uraz (h)emendik.</i>
“Urásemendi berríxa, goixan, beori sauana baiño goro, horko aitzak (...) or dakasu biria Bustiña juteko, eskumiñeta artu biar baserri ortako...”	<i>Urazemendi berria, goian, berori zegoena baino gorago, horko haitzak (...) hor daukazu bidea Buztiñagara joateko, eskuminetara [eskuinera] hartu behar baserri horretarako...</i>

⁴¹ Bai Deban, bai Mutrikun, ahoz, txistukarien arteko neutralizazioa gertatzen da; hori dela eta *Urasemendi*, *Urazamendi* eta *Urazandi* darabilte.

⁴² Gizonezkoa (Mutriku, 1936). Grabazioa: 2019-12-12.

3.2. Urazemendi auzoko bizilaguna⁴³

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
“Caserío Urasándi” [Erdaraz aritzean].	Caserío Urasandi [Erdaraz aritzean]
“Deban Urásandi (...) Urásamendi Mutrikun da, Ondarrun ere bai”.	“Deban Urazandi [esaten da] (...) Urazamendi Mutrikun [esaten] da, Ondarroan ere bai.
”Deban Urásandi, eta Diputasiuan ere Urásandi dao, úras ándik”.	Deban Urazandi, eta Diputazioan ere Urazandi dago [jasota/jarrita], uraz handik.
“Mutrikun Urásamendi”; “Mutrikun es disue esango Urásandi, Urásamendi esango disue, onduan es paldin baa, urás eméndik, Ondarrun ere Urás eméndik”.	Mutrikun Urazemendi; Mutrikun ez dizute esango Urazandi, Urazemendi esango dizute, ondoan ez baldin bada, uraz (h)emendik, Ondarroan ere Uraz (h)emendik.
“Guk etxian Urásandi beti; guk bisimoru dana Deban ein deu, baiña estet ukatzen ni mutrikuarra naisenik”.	Guk etxean Urazandi [esan dugu] beti; guk bizimodu dena Deban egin dugu, baina ez dut ukatzen ni mutrikuarra naizenik.
“Urasándi bérri”.	Urazandi berri.

3.3. Urazemendi auzoko bizilaguna⁴⁴

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
“Leno san Laranga ausoa, baiña oain da Urasamendi”.	Lehenago zen Laranga auzoa, baina orain da Urazamendi.

⁴³ Gizonezkoa (Mutriku, 1933). Grabazioa: 2019-12-19.

⁴⁴ Emakumezkoa (Mutriku, 1942). Grabazioa: 2020-01-07.

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
<p>“Urasándi, Urasaméndi... Deban esate(n) seen Urasándi ta Mutrikun Urasamendi, klaro porke s(e)on errixuan bestekaldetikan, origatikan... Deban beti esate seen Urasándi, klaro uras andik sauan-da, Debatik beituta, eta Mutrikun berris san Urasamendi, porke sauan uras emendik, orrela san ori, orrelaxe san (...) Porke Deban beti esate(n) seen Urásandi, klaro Debatik beitxu ta uras andik sauan, eta Mutrikun en cambio, ba uras amendik do, Urasamendi, Mutrikurako san Urasamendi eta Deba(r)ako Urasandi”.</p>	<p><i>Urazandi, Urazamendi... Deban esaten zuten Urazandi eta Mutrikun Urazamendi, klaro porke zegoen erriorearen [ibaiaren] bestealdetik, horregatik... Deban beti esaten zuten Urazandi, klaro uraz handik zegoen-eta, Debatik begiratuta, eta Mutrikun berriz zen Urazamendi, porke zegoen uraz hemendik, horrela zen hori, horrelaxe zen (...) Porke Deban beti esaten zuten Urazandi, klaro Debatik begiratu eta uraz handik zegoen, eta Mutrikun en cambio, ba uraz hamendik dago, Urazamendi, Mutrikurako zen Urazamendi eta Debarako Urazandi.</i></p>

3.4. Mijoa auzoko bizilaguna⁴⁵

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
<p>“Urásemeti, Urás eméti, ta Deban esate'ixue Uras andi... Deban preguntau ta Urásandi esaten dee, ta emen esate(n) san Urás eméti” / “Urásemetira guaz”, “Debarrak Urásandi”.</p>	<p><i>“Urazemeti, Uraz emeti, eta Deban esaten diote Uraz andi... Deban preguntatu eta Urazandi esaten dute, eta hemen esaten zen Uraz emeti”.</i> “Urazemetira goaz”, “Debarrak Urazandi”.</p>

Laburbilduz, lekuko guztiek ondotxo ezagutzen zuten Deba ibai aldamean egon zen etxea, eta ondo bereizten dituzte mutrikuarrek eta debarrek ematen zizkioten izenak:

- [DEBARREK] Urasandi (1, 2, 3, 4).⁴⁶

⁴⁵ Gizonezkoa (Mutriku, 1937). Grabazioa: 2020-01-07.

⁴⁶ Mijoko lekukoak (laugarrenak), *Urasandi* esatean, tarteka, A itxia ahoskatzen du, ia-ia “Urasandi” esateraino.

- [MUTRIKUARREK] Urasemendi (1, 2)⁴⁷, Urasamendi (1, 2, 3).
- [MUTRIKUARREK] Urasemeti (4).

Galdetu gabe ere lekukoek zuzenean eman digute izenaren jatorria:

- Uras amendik ‘uraz hemendik’ (1, 3).
- Uras emendik ‘uraz hemendik’ (2, 3).
- Uras andik ‘uraz handik’ (2, 3).

Baina *-k* amaieradun forma horiek ez dituzte erabiltzen etxea izendatzeko (zenbait dokumentutan agertzen bada ere); etimologia edo hitzaren esanahia argitzeko baino ez dute erabiltzen.

Mutrikun, “hemen” esateko “emen” zein “amen”, biak erabiltzen dira. Bi aldaera horiek, Mutrikun behinik behin, ez dute batere balio bereizgarririk.

Lau lekukoak mutrikuarrak izan arren, batek (2) ez du erabiltzen mutrikuarren “bertsioa”, aitortzen digunez, bizimodua Deban egiten duelako⁴⁸: “*Guk etxian Urásandi beti; guk bisimoru dana Deban ein deu*” [‘Guk etxean Urazandi [esaten genion] beti; guk bizimodu gutzia Deban egin dugu’] (2).

Etxe berria izendatzeko bi lekukok erantzundakoa jaso dugu:

- *Urasemendi berrixa* (1).
- *Urasandi berri* (2).

Ahozko erabileraren lekukotasunen osagarri, azken kontu bat. Mutriku-ko *Kalaputxi* izeneko aldizkarian hona ekartzea merezi duen gutun bat eman zuten argitara 2006. urteko apirilean⁴⁹:

⁴⁷ Kaleko lekukoak (1) gehienetan *Urasemendi* dioen arren, gutxi batzuetan *Urasamendi* esaten du, baita erdibideko soinudun forma bat ere (e>a).

⁴⁸ Horrez gain aipatzeko modukoa da, bere familiakoak 7-8 belaunalditan izan zirela Urazemendiko maizterrak edo errenteroak, eta etxejabea uraz bestaldean bizi zenez (Donostian, Deban...) Urazandi esango zion etxeari.

⁴⁹ *Kalaputxi* 50. zk. 2006ko apirila, 5. or.

URAZANDI ALA URAZAMENDI?

Autobusean noalarik, non ikusten dut kaleak izendatzeko seinalea: Urazandi.

Nire barnerako pentsatu dut uraz hemendik gaude ba!

Horrekin batera, gogoratu nuen nire amona Mariarekin edukitako elkarrizketa orain dela hogeita bost urte.

–Amona, Urazandi baserriko gizonak eskumiñak eman ditx zuretzat.

–Neska, Urazamendikua izango den. Ez den ikusten uraz hemendik dagoela? Urazandi debarrentzat izango den!

Ez naiz gai honetan aditua, baina pentsatzen dut kale eta toki izenak badutela euren esanahia eta historia. Dagokionak egin al du hausnarketa hori?

M.A.T.

4. Izen ofizialak eta normalizatorako proposamena

2009ko uztailaren 2an Mutrikuko Udalaren osoko bilkurak Mutrikuko auzoen izendegian “Urazamendik” auzoa sartzeari onetsi zuen.⁵⁰ Erabaki hori 2010eko martxoaren 3an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.⁵¹

Mutrikuko auzo eta inguru horren izenak dituen forma eta aldaera ugariaren aurrean eta orain arte esandakoak kontuan hartuz, nire ustez:

- *Urazandi* eta *Urazemendi*⁵² bikotearen aurrean, tradiziozko kokapen-izendapenaren alde egin beharko litzateke bigarren multzoko

⁵⁰ Badirudi erabaki horretan eragina izan zuela Xabier Basterretxea “Txordo”k bost hilabete lehenago *Kalaputxi* aldizkarian argitaratu zuen artikulua: *Kalaputxi* 70. zk., 2008ko otsaila, 18. or. “Mutrikun, Urazamendik”.

⁵¹ GAO, 41. zk., 2010-03-03, 60. or.

⁵² Esan beharrik ez dago, hasiera-hasieratik baztertu ditugula ahozkoan gertatzen den txistukariaren neutralizazioa jasotzen duten aldaerak (*Urasandi*, *Urasemendi*, *Urasamendi*). Gauza bera egin dugu aztergai dugun toponimoa (edo oikonimoa) hitz bitan banatzen dituzten aldaerekin (*Uraz-emeti*, *Uras-emendic...*).

aldaeraren bat hobetsiz, auzunea Mutriku delako eta uraz hemendiko aldean dagoelako. Normala da Debakoek *Urazandi* erabiltzea, oraindik ere izen gardena edo motibatua delako hitzuntentzat, izan ere ondotoxo ezagutzen dute esanahia. Bi izendapen horiek herri-ondare ukiezina edo immateriala dira, eta biak dira zaindu eta erabili beharrekoak, bakoitza bere eremuan.

- *Urazemeti*, *Urazamendik*, *Urazemendi* eta *Urazamendi* dira “Mutrikuko izen multzoaren” aldaera nagusiak. *Urazemeti*: idatzizko tradizioan gailentzen bada ere (ia 300 urtez erabili da), nahiko arrotza gerta dakieke gaur egun auzuneko eta inguruko hitzunei.⁵³ *Urazamendik*: Azken 9-10 urteotan izen ofiziala den arren *-k* amaieradun aldaerak arazo bat baino gehiago dauzka: batetik, amaiera hori ez da batere ohikoa euskal toponimian, eta arazo fonetikoak eta erabilerari dagozkionak sor ditzake (deklinatzean, esaterako). Ahoz, gainera, toponimoaren etimologia edo azalpena emateko baino ez dute erabiltzen hitzun gehienek aldaera hori. Eta, idatzizkoan ere, ez du tradizio luzerik. *Urazemendi* eta *Urazamendi*: Bi aldaera horiek erabiltzen dira ahoz nagusiki.

Dena dela, *Urazemendi* formaren alde egingo nuke nik, arrazoi hauen-gatik:

- a) Tradiziozko aldaera historikotik gertu samar dagoelako (*Urazemeti*=*Urazemendi*).⁵⁴
- b) ”Hemen” adberbioa herriko euskaran askotan ”amen” esaten bada ere, ez da sistematikoa, eta ”emen” eta ”amen” biak erabiltzen direnez estandarrekin bat datorren formaren alde egin beharko

⁵³ Nahiz eta, gorago ikusi dugun bezala, Mijoko lekukoak (4) “Urasemeti” izen ‘arkaikoa’ erabiltzen duen. Izan ere, Mutriku *-emeti(k)* forma ez da erabiltzen ahozko hizkeran aspaldi-aspalditik; 1775. urteko gutun batean *emetiq* (hemetik ‘hemendik’) dokumentatzen da Mutriku (IEA, C2072, 9. zk., Donostia, Ezkontzakoa). Bizkaiko toponimian erruz dokumentatzen da *-emetikoa*: *Amiaxemetikoa* (baserria, Amoroto; BFAH, Lekeitio, N0407/0157: *Amiax Emeticoa*, 1768), *Azkarraldemetikoa* (basoa, Larrabetzu, BFAH, JCR,4503/024: *Ascarra Alde Emeticoa*, 1871), *Igilizemetikoa* (baserria, Zamudio), *Albarrandimetikoa* (basoa, Ermua), *Oruemetikoa* (baserria, Zeanuri)...

⁵⁴ Ahoz, behinik behin, badirudi hau izan dela izenak izan duen erabileraren garapena: *Urazemeti* > *Urazemendi* > *Urazamendi*.

litzateke; gainera, herri-hizkeran ere “(h)emen” da forma generikoa eta markatu gabea.

- Idatzizko tradizioa, ahozko erabilera... aztertu ditugu, baina ez genuke alde batera utzi behar Interneten erabiltzen diren aldaeren maiztasuna⁵⁵: *Urazemendi* (1.080 aldiz), *Urazamendik* (754 aldiz), *Urasamendi* (278 aldiz), *Urazamendi* (96 aldiz), *Urasemeti* (41 aldiz), *Urasamendik* (9 aldiz), *Urazemeti* (6 aldiz), *Urasemendi* (4 aldiz), *Urazemendik* (0 aldiz).

5. Eranskinak

5.1. Idatzizko lekukotasunak

1518, **Huraçandi** (MUA-002,396; Fernández 2007: 345): “ha oydo dezir en la dicha villa de Deva en todo su tiempo que tres casas que son en la juridición de Motrico que se llaman Lasao e Buztinaga e Huraçandi tienen sus enterrorios en la dicha villa de Deva”.⁵⁶

1518, **Pasaje, torre del** (MUA-002; Fernández 2007: 462, 467, 477...): “casas e caserías de Bustinaga e Lasao e torre del pasaje” / “casas de Bustinaga e Lasao e Pasaje” (462). “la casa e casería de Buztinaga e torre del pasaje” (467)⁵⁷. “casa e torre del pasaje” (477).⁵⁸

1525, **pasaje, casa del** (ARCHV/9.8.1//REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 383,11, 4v).

⁵⁵ Alde batera utzi ditugu “Urazandi” eta “Urasandi” formak, batetik, gorago adierazitako arrazoiengatik, eta bestetik, Euskal Herri luze-zabaleko beste leku batzuetako izenekin batera agertzen direlako estatistikan. 2020/01/06an egin da bilaketa, Mozilla Firefox nabigatzailearekin eta Google bilatzailean.

⁵⁶ Kontuan hartu behar dugu Mutrikuko Udal Artxiboko (MUA) MUA-002 paper-sortako 1518. urteko auzian, lekuko gehien-gehienak debarrak zirela, eta horietatik batek (Juan Martines de Yçeta pilotu debarrak) baino ez zuela erabili “Huraçandi” izena dorrea izendatzeko, gainerakoek “torre del Pasaje” eta antzekoak aipatu zituzten: “se fueron a la torre que esta çerca del pasaje por la parte de Motrico (...) la casa e torre que esta a la orilla de la dicha ria e canal çerca el dicho pasaje”.

⁵⁷ Joanot de Ygueldo hondarribiarraren lekukotza.

⁵⁸ Tomas de Samalo mutrikuarraren lekukotza.

1542, **Huraçandi** (GPAH 2/1886, A118v, Eskribaua: JPA, De) “Jn^o Pz de Arriola el de Huraçandi”.

1545, **Vraçandi** (GPAH 1/2573, B20v, Eskribaua: DIL, Mu): “e montes e tierra e huerta de Vraçandi”.

1550, **Uraçandi** (GPAH 2/1889, A10A: 8r, Eskribaua: JPA, De): “Jn^o Pz de Arriola el de Uraçandi”.

1565, **Urazandia, casa de** (MUA-230, 166v): “...azia la torre del pasaje asta el agoa e dende asta lo perten^{do}[pertenecido] de las casas de Urazandja e Buztinaga e Lasao...”.

1568, **pasage, torre del** (GPAH 2/1899, A121v, Eskribaua: JPA, De): “En la torre del pasage jur^{on} [jurisdiccion] de la V^a de Motrico...”.

1583, **Hurazandia, casa y torre de** (GPAH 1/2595, D77r, Eskribaua: PS, Mu).

1602, **Urasandi** (GPAH 2/1934, A42r, Eskribaua: JRI, De): “Jn^o[Juan] Diaz de Arriola Urasandi asi bien hijo del dho capitan Jn^o O^a[Ochoa] en primeras nunçias”.⁵⁹

1618, **Uraz emeti, torre de; Uraz Emetia** (MUA-234, 129v): “...dende lo perteneçido de la torre de Uraz emeti p^a arriva asta el perteneçido de la dha cassa de Laranga (...) perteneçido d[ic]ho de Uraz Emetia para arriva...”.

1620, **Uraz Emetia, torre de** (GPAH 1/2602, D91r, Eskribaua: MRR, Mu). “...Asençio de Arriola tiene fabricando un galeon en los astilleros de su torre de Uraz Emetia...”. [Asentzio Arriola Urazemetiko jabea, errementari mutrikuar birekin].

1622, **Urazemeti, torre de** (GPAH 1/2621, C94r, Eskribaua: DI, Mu); **Urazemeti, cassa y torre de** (GPAH 1/2621, C96v, Eskribaua: DI, Mu).

⁵⁹ Kontuan hartu behar dugu ez dela abizena, jatorria adierazten duen etxe-izena baizik. Joan Ochoaren eta bere lehen emaztearen semea izanik, Juan Diaz de Arriola Aguirre beharko zuen. Edonola ere, bere aitaren izen-deiturak ere *Urazandi* izenari lotuta azaltzen zaizkigu eskribauen agiritan. Arriola deituradun beste batzuetatik bereizteko erabiltzen zuten etxe-izena, gainera, Debako etxean idatzi zuten agiria: “En las casas de Jn^o de Arriola que son en la Villa de Deba...”.

1624, **Urazemeti, torre de** (GPAH 1/2622, B13r, Eskribaua: DI, Mu).

1625, **Urazemeti** (MUA-164, 62): "...desde Ybirriaga asta Urazemeti y desde San Pedro asta Olaberrieta de suso..."

1625, **Urazemeiti, Urazemeti** (Martínez de Isasti 1625: 99): "Urazandi, por otro nombre Urazemeiti" (1850eko argitalpenean) / "Urazandi, por otro nombre Urazemeti" (XVII. mendeko eskuizkribuan) [Ikus Bibliografia].

1625, **Urazandi** (Martínez de Isasti 1625: 99).

1626, **Urazemeti, torre de** (GPAH 1/2622, D77r, Eskribaua: DI, Mu).

1647, **Urazemeti de Motrico** (GPAH 1/2629, 144v, Eskribaua: LA, Mu): "en mi torre del pasaje llamado por otro nombre Urazemeti de Motrico"; "en los astilleros de la dha nra torre de pasaje" (143v).

1649, **Urazemeti, torre del passaje de** (GPAH 1/2629, 148r, Eskribaua: LA, Mu).

1649, **Urazemeti, torre de** (GPAH 1/2629, 146r, Eskribaua: LA, Mu).

1669, **Urazemeti** (MUA-314, 205v): "Bartolome de Çuloeta inquilino de Urazemeti".

1714, **Uraz emeti** (MUA-314, 372): "por los [frutos de los castaños] de Uraz emeti hasta Maia".

1718, **Huraz emetia** (MUA-314, 386): "quando el yncendio en los montes conzejiles de Huraz emetia".

1720, **Uraz emeti** (MUA-314, 391): "52 reales de Pedro de Galdos por el [partido] de Uraz emeti [fruto de la castaña]".

1721, **Urazemetia** (MUA-314, 396): "9 cargas de roble trasmocho en el puesto de entre Urazemetia, y Laranga".

1722, **Urazemeti** (MUA-314, 401): "por los partidos de Urazemeti, hasta Maia".

1723, **Urazemeti, casa llamada** (MUA-108, 196): "Juan de Azque ynquilino de la casa llamada Uraz emeti".

1726, **Urazemeti** (MUA-314, 422): “Del de Urazemeti, 16 rs por el [partido] del mismo puesto. [fruto de los castaños]”.

1726, **Urazemettia** (MUA-314, 420). “Del ynquilino de Urazemettia”.

1728, **Urazemettia, ynquilino de** (MUA-314, 430).

1729, **Urazemeti, inquilino de** (MUA-314, 433).

1736, **Urazemeti ynqnos** (TEA-018, 36).

1736, **Uras emeti, ynqnos** (MUA-102, 122).

1748, **Urazemeti** (MUA-238, 70): “Urazemeti hasta Picoaga”.

1749, **Urazemeti** (MUA-238, 95).

1752, **Urasemeti** (TEA-018, 5).

1753, **Urasemeti, lengüeta de** (MUA-238, 173).

1754, **Urazemeti, el de** (TEA-018, 22).

1756, **Urasemeti** (TEA-018, 50).

1767, **Urazemeti** (MPA-Suertes de los frutos de los beneficiados).

1771, **Urazandia, casa de** (GAO-AGG JDIM2/21/73): “Expediente relativo a la cuestión ocurrida entre las villas de Deva y Motrico sobre la subsistencia del mesón y taberna en la casa de Urazandia, sita en la jurisdicción de la segunda”.

1772, **Uraz-emeti, casa de** (GPAH 1/2741, C126v-127r, Eskribaua: JBA, Mu): “la mucha necesidad que havia de que en la casa nombrada en ella Urazemeti, y en la de Deva Urazandia, hubiese alguna providencia de camas, y vituallas para los Pasageros...”.

1772, **Urazemeti** (MUA-064, 206): “Casa llamada en esta V^a[villa] Urazemeti, y en la de Deba Urazandi”.

1772, **Urazandi** (MUA-064, 206).

1772, **Urazandi, casa de** (MUA-240, 4).

1780, **Uraz emeti** (MUA-167, 25).

- 1780, **Uras-emeti** (MUA-167, 28).
- 1780, **Urazemeti, casa de** (MUA-240, 183).
- 1782, **Uras emeti, camino de** (MUA-167, 61).
- 1783, **Uraz-emeti** (MUA-167, 102).
- 1783, **Urasandia, casa** (AGS, MPD, 47, 080 [Vicente de Plo: Título: Plan Geometrico del Puerto y villa de Deva en la Provincia de Guipuzcoa]): “Casa Urasandia y Barca de Pasaje”.
- 1784, **Uraz-emeti** (MUA-167, 143).
- 1788, **Uraz Emeti** (MUA-167, 181).
- 1795, **Uras Emeti** (MUA-200, 607).
- 1812, **Urazameti** (MUA-201, 3).
- 1812, **Urasemeti** (MUA-199, 8).
- 1814, **Uraz Emeti** (MUA-201, 26): “La [caseria] de Uraz Emeti, 360 (rs) [colonos]”.
- 1817, **Urazemeti** (MUA-198, 181): “Urazemeti (Clase 3^a, reales 2, case-rios)”.
- 1818, **Urazemeti** (MUA-102, 55).
- 1821, **Urasemeti** (MUA-171, 150).
- 1821, **Uracemeti** (MUA-171, 161).
- 1828, **Urazemeti, caseria de** (1/2790, D160v, Eskribaua: FJC, Mu): “ca-serias de Urazemeti y Lasao mayor propias del citado Dn Juan Maria de Arteaga”.
- 1828, **Uracemeti, cas^a de** (GPAH 4/632, Hipoteken kontularitza, 196).
- 1830, **Urazemeti** (MUA-198, 222).
- 1832, **Urazemeti** (MUA-102, 358).
- 1833, **Urasameti** (MUA-198, 228).

1845, **Uras-emeti** (MUA-198, 340).

1847, **Uras-emeti** (MUA-198, 351).

1849, **Uras-emeti** (Madoz 1849, XV, 220): “Uras-emeti: cas. del barrio de Laranga...”.

1850, **Urasemeti** (MUA-102, 221).

1857, **Urasameti, casa de labor** (Nomenclátor de la provincia de Guipúzcoa, 130).

1860, **Uras-emeti** (MUA-243, 100v, 105v): “memorial del colono de Uras-emeti de esta jurisdiccion esponiendo el malisimo estado en que se encuentra el punto del costado de su casa para el embarque y desembarque de gentes en la barca del Rio Deva” (100v); “colono de la caseria de Uras-emeti de esta jurisdiccion sobre la rampa del embarcadero para la villa de Deva al frente de la caseria” (105v).

1862, **Uras-emeti** (MUA-243, 163r): “mal estado en que se encontraba el costado de la caseria de Uras-emeti para embarcarse y desembarcarse en dicho punto las gentes que van y vienen de la villa de Deva”.

1862, **Uras-andi, caseria llamada** (DUA-056, 257v): “a la orilla del rio Deva por la parte de Motrico al norte de la caseria llamada Uras-andi”.

1862, **Uransamendi, astillero de** (GPAH 4/632, 290).

1864, **Urasameti, casa de labor** (Nomenclátor de la provincia de Guipúzcoa, 746).

1866, **Urazandi** (La Época, 1866/10/09, 4. or. [Juan Venancio Araquistain idazlea]): “La lancha entonces, perdiendo poco a poco la fuerza de su marcha, fue a detenerse enfrente de Urazandi, balanceándose suavemente”.

1869, **Urazandi, caseria llamada** (EJE, 7. liburua, 438 finka, 1. inskripzioa, 11r). “Caseria llamada *Urazandi*, con sus pertenecidos, finca rustica, sita en el barrio de Laranga (...) consta de piso bajo con cuadra, un suelo alto de habitacion, otro de desvan y tejado”.

1870, **Urasemeti** (MUA-201, 80).

1870, **Uras-emeti** (MUA-198, 360).

1875, **Uras-emeti** (MUA-198, 144).

1878, **Urasandi** (La Iberia, 1878/01/31, 2. or.): "...autorizando a don José María Telleria para establecer un criadero de ostras en la margen izquierda del río Deva, y sitio llamado *Urasandi*, termino municipal de Motrico".

1888, **Urasamendi, caserio** (MBE, 1888-03-02, heriotza-agiria, 2. liburukia, 164r).

1889, **Uras-emeti** (MPA: Matrikula Liburua).

1893, **Urasandi, caseria** (DEAH, Deba, Andre Maria eliza, Hildakoen 7. lib., 1893-10-08, 225r; 1893-10-26, 226r).

1893, **Uras-emeti, caseria de** (DEAH, Mutriku, Jasokundeko Andre Maria eliza, Hildakoen 11. lib., 1893-10-08, 156r).

1893, **Urasemeti, caseria de** (DEAH, Mutriku, Jasokundeko Andre Maria eliza, Hildakoen 11. lib., 1893-10-26, 157v).

1893, **Uasameti, caseria** (MBE, 1893-10-07, heriotza-agiria, 4. liburukia, 93r; 1893-10-25, heriotza-agiria, 4. liburukia, 97r).

1900, **Uras-emendi** (MPA: Matrikula Liburua).

1905, **Uras-emendi** (MPA: Matrikula Liburua).

1905, **Urasemeti, caserío** (MUA-199,29): "Caserío Urasemeti. Laranga".

1907, **Usameti, caseria** (MBE, 1907-02-13, jaiotza-agiria, 10. liburukia, 238r).

1911, **Uraseneti(sic)** (Censo electoral de Guipuzcoa).

1920, **Uras-emendi** (MPA: Matrikula Liburua).

1923, **Urasemendik** (MPA-Velados): "Cuarta funeraria de Urasemendik".

1933, **Urasandi, caseria de** (MBE, 1933-10-11, jaiotza-agiria, 2. liburukia, 3r).

1934, **Urzandi**, caseria llamada (EJE, 7. liburua, 438 finka, 2. inskripzioa, 12v).

1936, **Urasandi**, caseria de (MBE, 1936-01-30, jaiotza-agiria, 2. liburukia, 18v).

1939, **Urasandi** (MUA-201, 119).

1940, **Urasandi** (MUA-103, 395).

1941, **Urasandi**, C^o (MUA-201, 138).

1941, **Urasandi**, C^o (MUA-201, 161).

1943, **Urasandi**, C^o (MUA-201, 188).

1944, **Urasandi**, C^o (MUA-201, 212).

1945, **Urasandi**, C^o (MUA-201, 270).

1946, **Urasamendi** (MUA-199, 390; MUA-103, 248).

1950, **Urasamendi** (MUA-102, 139).

1951, **Urasamendic** (MUA-103, 114).

1951, **Urasamendik** (MUA-103, 169).

1951, **Urazemendik** (MUA-200, 83).

1951, **Uraz-emendik** (MUA-200, 115).

1951, **Urasandi** (MUA-200, 92).

1951, **Urazandi** (MUA-200, 130).

1954, **Urasandi**, puente de (Diario de las Palmas, 1954/10/07, 2. or.): “reconstrucción del puente de Urasandi (Guipúzcoa) sobre el río Deva”.

1955, **Urasandi** (MUA-102, 22).

1956, **Urazamendi** (MPA: Matrikula Liburua).

1961, **Uras-Emendik** (MUA-265, 112v): “...en el lugar conocido o denominado *Uras-Emendik*”.

1963, **Usumendia(sic)** o **Carretera de Motrico** (DUA-082, 165v): “en la zona de Usumendia o Carretera de Motrico, enclavada en la margen izquierda de la ría de Deva”.

1963, **Uras-Emendik** (MUA-265, 160r).

1964, **Urzandi, caseria llamada** (EJE, 7. liburua, 438 finka, 3. inskripzioa, 14r).

1965, **Uras-Emendik, barrio de** (MUA-265, 231r): “...terrenos sitios en el Barrio de Uras-Emendik”.

1969, **Urazemeti** (Zubikarai 1969, 31). “Urazemeti [barrio de Laranga]”.

1974, **Urzandi o Urasandi, caseria llamada** (EJE, 63. liburua, 438 finka, 5. inskripzioa, 243r): “Caseria llamada Urazandi o Urasandi en el barrio Laranga de Motrico...”.

1976, **Urasandi S.A., Sociedad** (EJE, 63. liburua, 438 finka, 6. inskripzioa, 244r): “la inscribo a nombre de la Sociedad Urasandi S.A. por aportación”.

1993, **Urasandi berri**, vivienda unifamiliar llamada (EJE, 100. liburua, 5.794 finka, 4. inskripzioa, 53r): “Vivienda unifamiliar llamada URASANDI BERRI, ubicada en el Barrio de LARANGA, en jurisdiccion de la Villa de Motrico...”.

1999, **Urasamendi** (Mapa-Barrio): “Urasandi / Urasandi (Urasamendi)”.

1999, **Urasandi** (Mapa-Barrio).

1999, **Urasandiberri** (Mapa-Barrio).

2010, **Urazandi** (Mapa toponimikoa).

2010, **Urazandiberri** (Mapa toponimikoa).

2010, **Urazamendik, auzoa** (Mapa toponimikoa; GAO, 41. zk., 2010-03-03, 60. or.).

2019, **Urazamendik, biztanle-entitatea** (Eusko Jaurlaritzza).

2019, **Urazamendik Auzoa** (GFA).

2019, **Urazandiberri, baserria** (GFA).

5.2. Laburdurak eta siglak

5.2.1. *Artxiboak*

AGS: Archivo General de Simancas.

ARCHV: Archivo de la Real Chancillería de Valladolid.

BFAH: Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa.

DEAH: Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa.

DUA: Debako Udal Artxiboa.

EJE: Eibarko Jabetza Erregistroa.

GAO-AGG: Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Archivo General de Gipuzkoa).

GPAH: Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa.

IEA: Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa.

MBE: Mutrikuko Bake Epaitegia.

MPA: Mutrikuko Parrokiako Artxiboa.

MUA: Mutrikuko Udal Artxiboa.

5.2.2. *Eskribauak*

DI: Domingo Ibarra eskribaua, Mutrikuko eskribautza.

DIL: Domingo Ibáñez de Laranga eskribaua, Mutrikuko eskribautza.

FJC: Francisco Javier de Churruca eskribaua, Mutrikuko eskribautza.

JBA: Juan Bautista de Arriola eskribaua, Mutrikuko eskribautza.

JPA: Juan Pérez de Arriola eskribaua, Debako eskribautza.

JRI: Juan Ramos de Irarrazabal eskribaua, Debako eskribautza.

LA: Lázaro de Arizabalo eskribaua, Mutrikuko eskribautza.

MRR: Martín Ruiz de Recabarren eskribaua, Mutrikuko eskribautza.

PS: Pascual de Sasiola eskribaua, Mutrikuko eskribautza.

5.2.3. Bestelakoak

De: Deba

GAO: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Mu: Mutriku

r: recto (aurrealdea)

v: verso/vuelto (atzealdea)

5.3. Bibliografia

Aldabaldetrekua, P., 1989, «Itziar y Deba cara al mar», *Deba*, 12 (1989, Udaberria) 29-36.

Aldabaldetrecu, R., 1996, *Debako udalerría. Alderdi historikoak bertako dokumentuetan oinarriturik (1294-1894)/Municipio de Deba. Aspectos históricos en base a sus documentos (1294-1894)*. Donostia: Debako Udala.

———, 1998, «La heráldica y el mar en Gipuzkoa», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2 (1998) 599-618.

Aldabaldetrecu, R.; Castro, J., 2019, *Puente de piedra sobre la ría del Deba*. Deba.

Castellano, R.; Koch, S., 1981, *Misterio de Vizcaya*. Bilbo: International Book Creation.

Etxaniz, A.; Zaldúa, I., 2010, *Ordiziako leku-izenak*. Ordizia: Ordiziako udala.

Fernández Martínez, M. et alii, 2007, *Fuentes Medievales del Archivo Municipal de Mutriku (1237-1520)*. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 130, Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Galé, P. (zuz.); Olabarrieta, E.; Romaña, A., 2009, *Toponimia de Gorniz. Beca para la recogida y fijación de la toponimia de Gorniz*. Gornizko Udala.

Huxley, S.; Barkham, M. M., 1996, «Los Arriola de Urazandi: iniciativa empresarial marítima en Vizcaya y Guipúzcoa (c. 1540-c. 1630)», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 1 (1996) 349-388.

Irigoyen, A., 1995, «Euskal toponymia eta dialektologia», *ASJU*, 28. geh. (1995) 209-240.

Lakarra, J.A. (zuz.); Manterola, J. (koor.); Segurola, I., 2019, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Madoz, P., 1849, *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madril: Est. Literario-Tipográfico de P. Madoz y L. Sagasti. [XV. liburukia].

Martínez de Isasti, L., [1625] 1850, *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*. Donostia: Ignacio Ramón Baroja. [XVII. mendeko eskuizkribu bat ere kontsultatu dugu: *Compendio de la historia de Guipuzcoa*, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/8587>].

Martínez Álava, C. J., 2009, *Mutriku historia eta ondarea = historia y patrimonio*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Mitxelena, K., [1955] 1997, *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa, 5. edizioa.

Santana, A., 1996, «La nao de Urazandi. Una representación naval renacentista», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 1 (1996) 317-347.

Zubikarai, A., 1969, *Motrico*. Donostia: Caja de Ahorros Municipal.